

# Lehen estatuaren azken gerra


SAN MARINO, K.O. 301. Hiriak Erromatar Inperiotik bereiztea lortu zuen eta, ondorioz, munduko estatu subirano zaharrentzat jotzen da maiz, definizioak gorabehera. Baina titulu hori ez dator bat hiri-estatuak duen tamainarekin eta nazioarteko garrantziarekin. Europako estaturik txikienetakoa izanik (61 km<sup>2</sup>), gatazketan neutraltasuna atxikitzea ezinbestekoa izan du biziraupenerako.

Bigarren Mundu Gerran ere San Marino neutrala izan zen 1944ko uda arte. Mussolini erori ondoren, Reichak Italia iparralde militarik kontrolpean hartzea erabaki zuen. Hori lortzeko bidean, alemaniarrek estatu-txoarekin egin zuten topo eta ia nahi gabe eraso eta hartu zuten 1944ko ekainean.

Inbasioak ez zuen luzaroan iraun. Aliatuak penintsularen hegoaldetik aurrera egiten ari ziren eta, berehala, alemaniarrek San Marinotik alde egitera behartu zituzten. Itxuraz, inbadi-tzaileak atzera egiten ikusteak adorea eman zien sanmarinotarrei: Alemaniarri gerra formalki deklaratzera erabaki zuten.

San Marinon ez zuten espero alemaniarrek berriro aurrera egingo zutenik. Aste gutxiren buruan, Alemaniak tropak berrantolatzea lortu zuen eta aliatuak Italiatik egozteari ekin zion berriro. Helburu hori erabat lortu ez arren, aliaturen aurrerabidea mantsotu zuten eta zenbaitetan arerioek zertxobait atzera egitea ere lortu zuten. Estatu ñimiñoa tartean harrapatu zuten, berriro. Atzera nazien eskutan egonda, San Marino-ko agintariei kemen guztiak joan zitzaizkien: Ardatzaren indarrei telefonoz hots egin zieten baldintzarik gabe errenditzen zirela eta gerra uzten zutela jakinarazteko.

1945ean lortu zuten aliatuek San Marino alemaniarren atzaparretatik askatzea. Aurreko udako ikasgaia ahaztuta eta berriro ere alemaniarrek erretretan ikusita, sanmarinotarrak oilartu egin ziren. Telefonoaren



San Marinoko kale bat, 1944ko ekainaren 26ko bonbardaketaren ondoren. Hiri-estatu alemaniarrek inbaditu zuten orduan, eta hortxe bukatu zen San Marinoren neutraltasuna.

entzungailua altxa zuten orduan, baina oraingoan gerra berriro formalki deklaratzeko. Tropa alemaniarrek jiratze hutsarekin sanmarinotarrak dardarka hasiko ziren, baina gainbeheran ari zen potentziak kezka larriagoak zituen. Gerra amaitzean, San Marinoren deklarazio ezdeusa indarrean zen oraindik. Hala, ahobekeria kolpe haiei esker eta bestelako meriturik egin gabe, San Marino Bigarren Mundu Gerrako garaile ofizialeko bat izan zen.

San Marinok izan badu armada, baina garairik oparoenetan 1.000 kidera ere ez da iritsi. Mugazain lanak egiten dituzte eta polizia zibilari laguntzen diote zenbaitetan. Bestela, izaera sinboliko eta zeremoniala du gehienbat. Gerra berriro piztuz gero, Italiako armadak izango luke San Marino defendatzeko erantzukizuna, bi estatuek hitzarmen bidez erabaki bezala. Munduko estatu zaharrenak eta txikienetakoa ez luke potentzia militar indartsuei gerra deklaratzeko aukerarik izango. ■

## Arrastoak

### Zertarako sartu zuten tea poltsatxoetan?

TEA edari britainiarretan britainiarrena izan arren, te poltsatxoak AEBetan —eta txiripaz— asmatu zituzten.

XX. mendeko lehen hamarkadan, Thomas Sullivan New Yorkeko merkataria latorrizko potxoetan saltzen zuen tea, eta bezeroei lagin txikiak bidaltzeko tea zetazko poltsa txikietan sartzen hasi zen. Poltsatxoa bilgarri hutsa zen; Sullivanek espero zuen bezeroek lagina potoko tea bezala erabiltzea, hau da, bilgarritik ateratzea infusioa prestatu baino lehen. Baina bezero askok te poltsatxoa kontsumitzeko prest zegoen produktutzat jo zuten: ez zuten landarea poltsatik ateratzen eta edaria egun maiz egin ohi den bezala prestatzen zuten.

Bezeroek ezusteko asmatzaileria zoriendu zuten, tea prestatzea askoz erosoagoa baitzen hari esker, eta jakina, produktua horrela prestatuta bidal diezaien eskatu zioten. Sullivan, eskariak behartuta, te poltsatxoak merkaturatzen hasi zen. ■



Hasiera batean, ondo bilduta egoteko sartu zuten tea poltsatxoetan, eta ez zuzenean uretan sartzeko.